

# Ekialdeko europaren krisialdiaz

## Oinarrizko datu batzu Soziolinguistikaren alorrean

Bidezkoa denez, Ekialdeko Europan gertatzen ari den lurrikara sozio-politikoak, ikuspuntu askotatik ikertu behar da. LARRUN honetantxe, adibidez, fenomenoaren izari ekonomikoak, ideologikoak, eta abar, ikutu dituzte beste lankide batzuk.

Niri, berriz, hizkuntz edo etni arazoari loturik dauden alderdi soziolinguistikoez argitzapen batzu eskaintzeko proposatu didate. Eta egiteko horretan doazkizuen lerro hauek.

Atal zaila hau ere, zinez; Ekialdeko Europa horretan, nabarmenki ezer agertzen baldin bada, herrion aniztasuna eta bestetasuna baita. Bai Balkanetan, jakina; hauetxek hartu ohi baitira maiz oinarri sozio-linguistikoaren konplexutasunaz eredutzat, Baina bai Kaukasoko herrialde menditsuetakoa, Volga harrokoan, edo-ta, ia-ia sinetsi ezinezko gradoan, Kaspio ondoko Daghestan korapilotsuan.

Has aitzin, beraz, ohar pisu eta orokor bat. Ekialdeko Europa horretan, berezi ezinezko moduan el-kargaintzen dira *hizkuntzari* datxezkion faktoreak, eta *erlijioari* datxezkionak. Ofizialki Estatu horiek agnostiko edo-ta jainkogabe aitortu arren.

Ez da hau han bakarrik gertatzen. Gure artean arazo horiek errazkiagi zokoratu eta «ahaztu» egiten baditugu ere, gauza «bitxiak» gertatu dira berriki Mendebaldeko Europan. Suitzan, adibidez, eta orain dela hamabost urte, eta Jura-eskualdea, Autodeterminazioz, Berna-ko kanto zaharretik alde egitea erabaki zenean, erlijioaren izariak (Juratar batzuren protestantismoak, zehazkiago), nahi diren faktore ekonomikoak nahasirik (ekonomi loturak Barna-ekin baitzituzten Juratar horiek), gainditu egin zituen hizkuntzaren arauera espero zitekean eskualde-zatiketa.

Ekialdeko Europan, halere, guztiz nabarmena da, herrikidetasunaren eta herrien elkarketaren alorrean, erlijioaren eragin bortitza.

Yugoslavian, esate baterako, eta Bosnia-Hertzegovina Errepublikan bereziki, erlijioaren arauera zehazten dute gehienek beren naziotasuna: «muslim» izan, ala ez izan. Hortxe da berezgunea. Errepublika horretan gehienak hizkuntzaz serbo-kroaziarrak izan arren, «muslim»tzat daukate beren burua askok eta askok. 1981ko Erroldan, zehazki, 1.629.924 serbo-kroaziarrak (hizkuntzaz, alegia), %36,8ek beraz,



**Ofizialki Ekialdeko Europako Estatuak  
Jainkogabe eta agnostiko izanik ere,  
dira hizkuntzari  
datxezkion faktoreak eta erlijioari datxezkionak.**

kroaziar katolikoekin edo serbiar ortodoxoekin nahasirik ez gertatzekotan, «muslim»tzat jo zuten beren burua.

Aginte politikoez ere, jakina, taktika hutsez, erlijio-izaria azpimarratzen dute batzutan, horretara azpian datzan hizkuntz eta herri-kakoa izkutatu nahiz. Bulgariar «islamdartuak», ez al dira azken funtsean Bulgaria-ko *turkiarrak*, besterik gabe? hots, honi buruz, nekez harri gintezke: Zeuta eta Melilla-ko *marrokiarrak*, «pour les besoins de la cause», bertako «musulmanak» besterik ez baitira Madrileko agintearen Agirietan, eta PSOEn hizkera landuaren arauera...

Datuak eman ohi diren bezala, hitz batez, oso zaila da faktore soziologikoen eraginak banan-banan neurtzea.

Beste faktore garrantzitsu bat hartu behar kontutan, Balkanei buruz batez ere. Eskualde honetako Estatuak oro, berriki sortuak dira; orain dela mende bat arte, bi inperio eskerbaren menpean bizi baitziren hainak: *Austria-Hungria* zeritzon inperioa zegoen, batetik; eta *otomandar* inperioa, bestetik.

Hots, bi inperio horiek suntsitzerakoan, Estatu berrien arteko mugak, «irrazionalki» ezarri ziren (hobeiki esan, garaiko «handien» indar eta interes politikoaren «egokikerian» eta joko ilunen arauera). Balkanak, horrela, berez ere eskualde zail eta korapilotsu izanik, sumendi edo sugezulo hutsa da gaur egun. Eta Autodeterminazioak Balkanetan moldabide narratxei gaina hartuko ez dieno, hortxo iraungo du polbora-metak, edonoiz lehertzeko prest.

Zergatik izan daiteke hobea aitorgaitza, esate baterako, Yugoslabiako Kossovo eta Albania ofiziala elkargandik berezita egoteak funtsik ez duela esatea? Zergatik Serbia barruko Voivodina ofiziala (eta honen barruko lurralde magyartarra, batez ere) eta Hungaria ofiziala bereztea «contra natura» dela deklaratzeko bekatu latza?

Eta, jakina, antzeko akatsak aurkitzen dira Sobietar Batasunean. Zergatik Goiko Karabakh armeniarra Azerbaidjanen barruan?

Haratago, eta beste sentidu batean, zergatik ez *elkartuko*, gaurko *muga zentzugabeak* mogituz, Iran-go azeritarrak eta Azerbaidjan-go azeri ofizialak? Bidezkoa al da urtetan barrena muga horri eusteko, hari elektrikoez baliatu beharra? Zergatik armeniar batzu Sobietar Batasunean, eta beste batzu (gutxi, jakina, 1915ko genozidioaren ondoren) Turkiaren barruan, «Turkiar» soil bihurturik? Joan den mendean Mosku-ko zarren armadak herri horien Ipar-erdia bakarrik menderatu zuelako?

Herri horien nazio-kontzientzia, kulturaren hazkundearekin batera, *gora* doa han ere; gainerako leku guztietan bezala. Herriek *berdintasuna* eskatzen dute. Zeren izenean ukatuko?

## Nazioak eta nazio-gutxiengoak

Eskubide internazionalaren aldetik, oso desberdintzat berezten dira *nazioak* eta *nazio-gutxiengoak* («people» vs. «minority»).

Autodeterminazioari dagokionez, bereziki, *nazioei* aitortzen zaie Autodeterminazio-Eskubidea, A.E. («herriei» batzutan; «nazio» hitza askotan «Estatu»aren kide agertzen delako). Nazio gutxiengoei, berriz, *diskriminaziorik* gabe eta gainerako hiriki-deekiko *berdintasunean* tratatzea aitortzen zaielarik.

Hauxe da, kasurako, Yugoslabiako ordenamen-



**Yugoslavia: sei errepublika, bi probintzia autonomo, hiru hizkuntza (gehi bi, egia esan)...**

duan ageri dena: *nazioek* dute A.E., *nazionalitateek* ez.

Hots, oso garbiki funtsatzen dute bi multzoon arteko desberdintasuna: *nazioek*, oro har, Yugoslabiaren barruan dute beren erdigune edo ardatza eta nazio-tarren gehiengoak Yugoslabian dago (serbiarrek edo eslobeniarrek, adibidez, nazio bana osatzen dute). *Nazionalitateek*, aldiz, ardatza edo erdigunea *at* dute, beste Estatu batetan, eta «extra-territorial» gisa agertzen dira. Kossovo-ko albaniarrek, Voivodinako magyartarrak, eta are garbikiago Eslobeniako italiarrek, adibidez, kaso horretan daude; erdigunea edo «ama-aberria» Albanian, Hungarian eta Italian dute-lako.

Hots, beren aberri-lurralde tradizional, berezi eta trinkoa duten *nazioei*, *lurraldetasunaren* gainean eraikitako *hizkuntz antolamendua* bideratu behar dela dirudi. Benetako lurralde berezi, trinko eta zehatzik ez duten *nazionalitateei* (sakabanaturik dauden herriak, batez ere), soluzioa *personatasunaren* gainean antolatu behar dela dirudi; kasu hauetan eskubide *personalak* errespetaraziz. Suitzak hartu du honelako bide bat aspaldidanik: *lurraldetasuna* azkarki bermatuz, eta «enklabe» txikien suntsiera bul-tzatuz.

## Yugoslavia zenbait taulatan

Sei errepublika, bi probintzia autonomo, hiru hizkuntza (gehi bi, egia esan)... (Ikus 1. Mapa)

Yugoslabiak 22.442.701 biztanle ditu (1981).

Hizkuntza nagusia (nahiz ez yugoslabiarrak guztiek «jakin beharrekoa») serbo-kroaziera da, bi alfabetotan (eskualdeen arauera) idatzia. Lau errepublikatan da hizkuntza ofizial nagusia: Serbia, Kroazia, Bosnia Hertzegovina eta Montenegro.

**Autodeterminazioak**  
Balkanetan moldabide  
narratxei gaina  
hartuko ez diona,  
hortxo iraungo du  
polborametak,  
edonoiz lehertzeko  
prest

Gogoan har dezagun, beraz, beste bi errepublike-tako hizkuntz egoera (1981):

	Biztanleen kopuru osoa	Nazio-hizkuntzaz mintzo
Eslovenia	1.891.864 bizt.	1.712.445 bizt.
Mazedonia	1.912.257 bizt.	1.281.195 bizt.

Mazedoniako Errepublikan, muga-bitxikeriak beti, albaniar mordo galanta dago: 377.726 lagun (%19,8). Gainerakoak, jakina, serbo-kroazieraz mintzo dira.

Eslovenian esloveniera da nagusi, eta elebitasuna (serbokroaziera gehi esloveniera), teorian bederen, ez dago oso zabalduta (erdotsua bakarrik). Esloveniera eta serbo-kroaziera, dena dela, hizkuntza jatorri-kideak dira; eta elkar-ulerkuntza handia da.

Mazedoniera, berriz, bulgarieratik dago hurbil («Mendebaldeko bulgariera», diote Sofian).

Legez hala ez bada ere, «de facto» serbo-kroaziera da Yugoslabiako «erdara batua», nolazpait esateko.

Bi probintzia autonomoetan, berriz (biak Serbia barruan) oso egoera desberdina dago (1981):

	Biztanleen kopuru osoa	Nazio-hizkuntzaz mintzo
Kosovo (albaniar gutx.)	1.584.441 bizt.	1.226.736 bizt. (% 77,4)
Voivodina (magyarar gutx.)	2.054.772 bizt.	385.356 bizt. (% 18,8)

Hungariera ez da indo-europar hizkuntza ere; eta albanierak eta serbo-kroazierak antzik ez dute. Kosovo atzeratua da ekonomiaren aldetik, Voivodina aurreratua delarik.


Arrazoi desberdinengatik, tentsiorik larriena Kosovon eta Eslovenian dago gaur.

### Albaniarrak zatiturik

Albaniarrak (=skipetarrak) 4.495.000 dira (1981). Eta honetara daude zatiturik:

Albania (Estatua) .....	2.588.750	biztanle
Kosovo (Serbian).....	1.226.736	biztanle
Mazedonian (Yug.).....	377.736	biztanle
Beste errepubl.(Yug.).....	127.104	biztanle
Italian (25 udalerritan).....	80.000	biztanle
Grezian (gutxi g.b.).....	93.000	biztanle

Hitz batez, skipetarren %58 besterik ez du biltzen Albania ofizialak.



**Kaukasoko errepublikak; beste toki askotan bezala nazionalismoak buruhauste handiak ekarri dizkio SESBko Gobernuari; eta baita odol ugari isuri bertan ere.**

Kosovon, azaldua denez, %77,4 dira; baina albanierak hor ofizialkidetasunaren maila besterik ez du, Serbia-ko parte denez.

Joera ultra-kosovar batzu jasan ondoren (1945-1968 aldian), «kosovarrek» orain beren «standard» berezia egiteko asmoari utzi diote; eta *Albaniako hizkera bera* hartu dute Kosovo-ko Batutzat (Flandriak Holandari buruz, eta Quebec-ek Frantziari buruz egin duten bezalaxe).

Kosovarrek «Errepublika» maila eskatzen dute, baita honi legokiokoen Autodeterminazio-Eskubidea ere. Belgrado beldur da; azken funtsean «Albania Batua» eraikitzeko projektua somatzen duelako.

### Greziako hizkuntz egoeraz bi hitz

Koronelen urteetan etorritako joera hiper-klasikoa zenbait urtez inposatu ondoren gaur egun herriak erabiltzen duen «dimotiki»a bihurtu da Greziako hizkuntza ofiziala; «katharevusa» izenekoa alde batera utziz. Nazio-hizkuntza «herrikoitu» egin da.

Greziak ez du, halere, grezieraz kanpoko *beste ezer* aitortzen. Atenas ondoko «arvanita» delakoak (albaniarrak), lege-babesik ezean, beren hizkuntza galtzen ari dira.

Ipar-Grezian, «Makedonia» zaharrean, eslabiar mazedonieraz mintzo diren 130.000 lagun daude; eta Mendebaldeko Trazian eta Dodekaneso uharteetan, 14.000 bat turkiar. Hauetako ezer ez da inon ager-

**E**kialdeko Europa horretan, berezi ezinezko moduan elkargaintzen dira hizkuntzari datxezkion faktoreak, eta erlijioari datxezkionak.

tzen. Nahiz greziarrentzat inolako arriskurik ez egon: Greziak 8.600.000 biztanle ditu.

Honez gain, eta *arazo nagusi* gisa, *Txipre*-ko istilua dago. Gaur bi partetan zatiturik, eta berez-lerro gotor batez erdibiturik, uhartea beti dago tentsio-gune bortitz. Greziar jendaldeak, Hegoaldean, 475.000 biztanle ditu; eta besteak, turkiarrak, Iparraldean, 195.000 biztanle ditu (gehi turkiar armadaren oste gaitzak, beti han tenk). Bi erdiok elebakarrak dira; eta gudaketa ere gertatu da behin eta berriz: 1936, 1974.

Greziar «turkiarrik» ez baitago, «greziar musulmanen» artean bilatu behar dira alogenoak. Izkutakuntza horretan bertan ere garbiki ageri da ez-greziarrek Greziar daramaten bizimodu zaila; eta egoera honek sor ditzakeen tirabirak.

### Magyartarren sakabanaketa

Uste arruntaren aurka, zatiturik daude magyartarrak. Hungariar multzo osoaren parte handi bat (bi miloitatik gora), Yugoslabian, eta Errumanian batez ere, aurki daitezke:

Voivodina (Yug.)..... 385.356      lagun (1981)  
Errumanian (Transylv). 1.706.874      lagun (1977)

*Voivodina*-ko kasoak ohar bat merezi du. Serbia Errepublikak barruko Probintzia Autonoma izanik, magyartarrak, batetik, gutxiengo apurra dira Errepublikan (%4); baina, horrez gain, Voivodinari eman zitzaizkion mugak direla-ta, probintzian bertan gutxiengotarik bizi dira magyartarrak (%18,7, Voivodinari dagokionez). Hitz batez, serbiarrak nagusi dira Voivodinan bertan.

*Errumaniako* magyartarrak, bestetik, sakabanaturik daude Estatuaren erdialdean (Mendebaldeko mugaraino). Transylvaniako probintzia batzutan. «Szklers»etan batez ere, gehiengoa dira.

Harghita ..... 248.866      lagun (%88,1)  
Kovácsna ..... 140.472      lagun (% 79,4)

Beste zenbait probintzian gutxiengoa izan arren, kopuru handiak dituzte:

Maros ..... 249.657      bizt. (%44,5)  
Szátmán..... 147.594      bizt. (%41,1)  
Bihar ..... 192.948      bizt. (%32,9)  
Kolozsvár..... 164.768      bizt. (%26,1)  
Salaj ..... 63.850      bizt. (%24,3)

Aste hauetan behin eta berriz azaldu denez, bor txazko errumaniarkuntzara behartu zituen Ceaucescuk azkeneko urteetan; herri askoren deserrikuntza orokorra antolatuz. Ez da harriztekoa Ceaucescu-ren erortzea magyartar probintzia hauetan hasia.

Beste azken ohartxo bat Errumaniari buruz: bertako alemaniar gutxiengoa. 345.000 bat lagun dira

(1977). Gehienak Transylvanian bizi dira (170.000) eta Banat-en (162.000).

Errumaniak, nolana ere, 22.005.000 biztanle ditu (1979).

### Bulgaria-ko turkiarrak

Sofia-tik ikusirik, Yugoslabiako mazedoniarrek «Mendebaldeko bulgariar hutsak» direla errepikatuz (nahiz gaur Errepublika berezia izan Yugoslabian, eta beren «standarra» bulgarietatik at egon), turkiarrak dira Bulgariako multzo arrotz nagusia. (Turkiar gutxiengo hau Ipar eta Hego-Ekialdean daude kokaturik).

Gorago ere esana dugunez, eta islamdar guztiak turkiarrak ez direnez, eta, era berean, kristau guztiak bulgariarrak ez direnez, taula hau aurkez daiteke:

Hizk.	Erljioa	
	Kristauak	Islamdarrek
Bulgariara	7.955.000	170.000 («Pomak»)
Turkiera	5.000 («Gagauze»)	650.000

«Gagauze»tarrek erabiltzen duten hizkera, turkiarrik hurbil dago oso.

Bulgaria otomandar inperiotik jaregin zenez gerotzik (1878), oso urte zailak ezagutu ditu han turkiar gutxiengoak. Inperio zaharraren aztarna lotsagarrituz luzaz harturik, garai on xamarra ezagutu zuten azkenean gerla ondoren (1944-1984), aginte komunistaren menpean. Turkiara joan nahi zutenek, joateko aukera izan zuten; eta 150.000 lagun deserri-tu ziren horrela beren buruz jatorrizko aberrira itzultzekotan (150.000 lagun, 1951 inguruan). Bigarren olatua 1968 inguruan gertatu zen, beste 140.000 turkiar Turkiara aldatuz.

1984ko Abenduan, ordea, «bulgariarkuntza» kanpaina bati ekin zion Jivkov-ek: izena «bulgariartu» behar, turkiarrazko eskolak hetsi, kalealdean turkiaraz mintzatzea debekatu, eta abar. Bulgariako turkiarrek, Ankarako gobernuak sortzen zuen kezka gaituz, Turkiarako bidea hartu zuten berriro. Eta Gorbaxoven aide berriek bizkorturik, muga zabaldu bezain laister (1989-V-10), 320.000 turkiarrek egin zuten ihes bulgariatik, dena galduz. Egunean 360 etorkin habaila horri ezin eutsirik, Ankarako gobernuak muga hetsi zuen.

Zertan dago gaur, beraz, turkiar multzo hori? So-

**1984ko** Abenduan «bulgariarkuntza» kanpaina bati ekin zion Jirkov-ek: izena «bulgariartu» behar, Turkierazko eskolak hetsi, kalealdean turkiaraz mintzatzea debekatu, eta abar.



Nazioa	Estatuko jendaketa 1979	Nazio hizkuntzaz mintzo	Errusieraz mintzo	Elebidunak: nazio-hizk. + errusiera
Estonia	1.466.000	% 64,7	% 27,9	% 24,2
Latvia	2.521.000	% 53,7	% 32,8	% 56,7
Lituania	3.398.000	% 80,0	% 8,9	% 52,1

Lituanian, beraz, ez dago errusiarkuntza arrisku handirik: elebitasuna zabaldua dago, baina errusiar gutxi dago; eta, beraz, errusierak funtzio instrumentalak dituela pentsa daiteke, eguneroko mintza-tresnatik at. Estonian, eta are garbikiago Latvian, errusiarkuntzaren arriskua hor dago: errusiar elebatar asko eta latviar elebidun asko. Erabilpenean errusiera nagusi. Eta areago kalean eta industrialdeetan; giro hauetantxe agertzen baita indartsu errusieraren bidezko eskola. Khrushch-en garaiaz geroztik, *gurasoen* esku dago eskola-motaren aukeratzea (=personatasuna).

fiako gobernuaren zabalketa dela-ta, Turkiara joandako bulgaro-turkiar batzuk atzera egin dute berriro (50.000 gutxi gora-behera).

Kolss Haarman-en ikerkuntzan, 724.000 turkiar aipatu zuten Bulgariari buruz (1967). Multzo gaitza, eta tentsio larritan bizi dena.

Pomak-tar musulmanak, dena dela, bulgariarrak dira hizkuntzaz oso aspaldi danik; baina bulgariar josten dute beren burua.



## Sobietar Batasunaren konplexutasunez bi hitz

E.S.S.B.ra igaroz gero, nekez ulertzeko hizkuntz eta nazio-aniztasunean barrena abiatu behar dugu.

Gaia orokorki inolaz ere azaldu ezinik, ideia nagusi batzu bakarrik azpimarratuko ditugu.

## Baltikoko hiru errepublikak

Ekonomiaz aurreraturik, eta nazio-kontzientziaren aldetik oso abertzale eta beren buruaren jabe, 1917-1940 urteetan askatasun osoa izan zuten hiru nazio hauek, egoera hau erakusten dute hizkuntzaren aldetik:

## KAUKASO-KO ERREPUBLIKAK

<b>Georgia</b> (Kartulia) 69.700 km <sup>2</sup> 5.015.00 bizt.	(hb.: Soukhomi) (Errep. Autonomoa)	Armeniarrek: %89,7 (Errusiarrek: %2,3)	Azeritarrek: %78,1 (errusiarrek: %7,9)
Georgiarrak: %68,8 (errusiarrek: %7,4)	<b>Adjaria:</b> 354.000 bizt. (hb: Batoumi) (Errep. Autonomoa)	<b>Hiriburua:</b> Yereran	<b>Hiriburua:</b> Baku: 1.236.000 biz.
<b>Hiriburua:</b> Tbilissi: 879.000	<b>Hego Osetia:</b> (Eskualde Autonomoa)	<b>Barruan Nakhichevan:</b> 239.000 bizt. (azeritarrek) (Errep. Autonomoa)	<b>Barruan:</b> <b>Nagorno-Karabath</b> (Hb: Stepankert (armeniarrek, %80) 16.000 bizt. (Eskualde Autonomoa)
<b>Barruan</b> <b>Abkhazia:</b> 505.000 b.	<b>ARMENIA</b> (hayeren) 29.800 km <sup>2</sup> 3.031.000 bizt.	<b>AZERBAIDJAN</b> 86.600 km <sup>2</sup> 6.028.000 bizt.	

Estonian eta Latvian, beraz, egoera arrikutsuan agertzen da nazio-hizkuntza: sasi-diglosia, eta abar. Estoniarren eta latviarren atxekimendua, dena dela, nabarmen dago. Ez dago «erdalergia»rik, eta autode-terminatzeko eta askatasun osoa berreskuratzeko bultzada egunero agertzen da prentsan «perestroika» sustraitu denez geroztik.

## Kaukasoko hiru errepublikak

(ikus 2. Mapa; eta datxezkion taulak)

Kaukasoko errepublikak eta Baltikokoak txit desberdinak izanik ere, eroso izan daiteke bigarren hirukote gisa hemen aurkeztea; besterik ez bada ere, hila-bete hauetan eta Moskutik aldegiteko eginahalaren aldetik, bateratsu agertzen direlako.

Georgiak, Armeniak eta Azerbaidjanek, 1829z geroztik Moskuren menpe egon arren, nazio-nortasun eta atxekimendu handia dute, batetik; eta nazio-gutxiengo ezagunak dituzte beren lurraldeetan, bestetik, soluzio glotopolitikoak are zailago eginez.

Oro har, hauxe de Kaukasoko hiru errepublikon hizkuntz egoera (1979):

Nazioa	Estatuko jendaketa 1979	Nazio hizkuntzaz mintzo	Errusieraz mintzo	Elebidunak: nazio-hizk. + errusiera
Georgia	5.015.000	% 68,8	% 7,4	% 26,7
Armenia	3.031.000	% 89,7	% 2,3	% 38,6
Azerbaidjan	6.028.000	% 78,1	% 7,9	% 29,5

Azeri-era eta georgiera, turkieraren eta ibero-kaukasikoen multzokoak ilara horretan, ez dira hizkuntza indo-europarrak. Armeniera bai; nahiz oso berezia. Errusieratik urrun dira, hortaz, hirurak.

Ondoko taulan ikus daitekeenez, Georgiaren barruan bi errepublika autonomo daude, eta eskualde autonomo bat. Armenia eta Iranen artean, *Nakhichevan* errepublika autonomoa dago, azeritarrez jendetua. Eta Azerbaidjanen barruan, nagusiki armeniarrez jendetua, *Karabakh* eskualde autonomoa dago. Itxura denez abkhaz-era da, zenbait aldetatik bederen, euskaratik «bertenik» dagoen ibero-kaukasiar hizkuntza; baina beronen egoera sozio-linguistikoa oso txarra da: 487.000 abkhaz-dun 1970an (errepublikako %15,9 bakarrik). Armeniar multzo handi bat bizi da Georgian (800.000 gutxi gora-behera); eta ez bide dute asimilatzeke asmorik. Georgiarrak 3.450.000 dira (1979).

Nazio-hizkuntzari dagokionez, Baltikoko na-

zio-hizkuntzak baino seguruago agertzen dira Kaukasoko hiru hizkuntza handiak. Gutxiengo txikia dira etorkinak (errusiar etorkinak bereziki); eta kasu honetan, errusierarekiko elebitasuna «funtzionala» da; eta kanpo alderakoa, nazio-hizkuntzak mehatxaturik ez daudelarik. Inguramendu horretan, islamdar fundamentalismoa bihurtzen da zema nagusia, Armenian eta Karabakhen.

Hizkuntzari dagokionez, nolana ere, askoz ere indartsuago dago armeniera ESSB-an, Turkian baino (desagertua praktikan); eta onartuago ere azeri-era Azerbaidjan-en, Iranen baino (3.500.000 azeri-tar Iranen).

## Hiru errepublika eslabiarrak

Hauetxek osatzen dute ESSB-ko gehiengo (1979):

Nazioa	Estatuko jendaketa 1979	Nazio hizkuntzaz mintzo	Errusieraz mintzo	Elebidunak: nazio-hizk. + errusiera
Errusia	137.551.000	% 82,6	% 82,6	
Bielo-errusia	9.560.000	% 79,4	% 11,9	% 57,0
Ukrania	49.755.000	% 73,6	% 21,1	% 49,8

Errusiarrak ez dira elebidunak: %98,2 elebakarrak dira.

Bielo-errusia eta ukrainiera, errusieraren antzekoak dira. Bielo-errusian eta Ukrainian handia da elebitasunaren tasa (jendaketaren erditsua mintza daiteke ongi errusieraz); eta errusiar etorkinak elebakar egonik, errusiera bidezko eskolak guraso alde bildurik (hiriburuetan batez ere), errusieraren bi hizkuntza «anaiak» arrisku larritan daudela esan daiteke.

Arrisku horretatik heldu da, bi errepublika eslabo horietan preseski, hizkuntzaren baranoan *lurraldetasun hertsia* eskatzea («belgikar modura» argitu dute); eta separatismo politikoak indar handia biltzea.

## Errepublika erromaniko bakarra

Gerla ondoren sartu zuten ESSB-an Moldavia txikia, Ukraina eta Errumaniaren artean. Geografiaz, historiaz eta hizkuntzaz, *errumaniarra* da. Moldabiera, daco-errumaniaren azpi-dialekto bat besterik ez da; Goierriko gipuzkera, eman dezagun, euskarari buruz dena. Okupazio arrotz baten aurrean gaude.

Nazioa	Estatuko jendaketa 1979	Nazio hizkuntzaz mintzo	Errusieraz mintzo	Elebidunak: nazio-hizk. + errusiera
Moldavia	3.947.000	% 63,9	% 12,8	% 47,4



Benetako elebitasunaren aldeko mogimenduen berri heldu zaigu azkeneko hilabeteotan, eta errusieraren kontrako jarrerak.

### Errepublika autonomoetako egoera

Oro har, askoz ere aurrerago joan da errusiarkuntza 20 errepublika *autonomoetan*, 15 errepublika *federatuetan* baino.

Hego-kareliarrak, hedadura gaitzetan barrena sakabanaturik, asimilazio betean abiatu daude: %71,3 errusiar, vs. %11,1 kareliar (1979). Suomiera adarra zen kareliera, suntsituztat eman daiteke.

Era berean, gaur egun errusiarrak dira nagusi, demografikoki, ondoko errepublika autonomoetan: Kalmukian, Komi-herrian, Mari eta Mordva-herrian (suomitarren lehengusuak bi herri hauek), Tatarian, Udmurtian.

Aldiz, *Daghestan*-en (musulmanak), Kaspioaren ondoan, guztiz harrigarria da egoera. Jendaketa osoa (1979): 1.628.000 biztanle. (Errusiarrak: %11,6 bakarrik).

Daghestandarrak, hala ere, oso «daghestandar» senditzen bide dira; eta herri bakar bat bailiren ari dira.

### Azken oharrak

Ekialdeko nazio-tentsioena azkarra, etni-aniztasun honetan funtsatzen da (hiru errepublika kaukasikoetan ere, harrigarritzko hizkuntz aniztasuna dago, hizkuntzasun ofizialaren azpian).

Nekez aurki daiteke eskualde zabal horretan bake egiazkorik eta iraunkorrik, Auto-Determinazio esku-bidea han eta hemen ausarki aintzakotzat, are gida-

Hots, egoera sozio-linguistikoa hau zen:

Hizkuntza	Hiztun-kopurua	Hizkuntz-multzoa
Avar	415.387	Ibero-kaukasikoa
Archi	1.000	Ib. k.
Andi	8.000	Ib. k.
Botlikh	3.000	Ib. k.
Akhvakh	5.000	Ib. k.
Godoberi	2.500	Ib. k.
Karata	5.000	Ib. k.
Bagulal	4.000	Ib. k.
Chamalal	4.000	Ib. k.
Tindi	5.000	Ib. k.
Dido	7.000	Ib. k.
Khvarshi	1.000	Ib. k.
Ginukh	200	Ib. k. (1959an)
Bezhetá	1.500	Ib. k.
Gunzeb	600	Ib. k. (1959an)
Lak	82.065	Ib. k.
Dargin	244.352	Ib. k.
Lezgin	185.563	Ib. k.
Tabasaran	70.398	Ib. k.
Agul	11.376	Ib. k.
Rutul	14.212	Ib. k.
Tsakhur	4.543	Ib. k.
Kumyk	200.572	Turkieraren fam.
Nogai	20.823	Turk. fam.
Tati	6.803	Iranieraren fam.
Errusiera	189.405	eslab.
Azeri	62.769	truk.
Chechen	48.934	Ib. k.
Yiddish	16.131	germ.

(azkeneko lau hauek kanpotik etorriak dira)

ritzat ere, hartu gabe.

Ohar hau, jakina, berdintsu egin daiteke Mendebaldeko sailkapenari begiraturik. Azken bi mende honetan Euskal Herriak jasan duen kondaira hits eta odoltsua, honen egiaren sakona salatzen du bortizki.

Geroak erranen

**Txillardegí**